

KONTRAZEPZIOA. Metodoa heldu den urtean plazaratuko dute Estatu Batuetan, errezetarekin

Azalari atxikitzen zaion lehen txatal antisorgailua onartu dute AEBetan

Medikuen iritziz, 'Ortho-Evra'-k %99ko eragingarritasuna du haurdunaldiak eragozten



EGUNKARIA

Txatal antisorgailua sabelaldearen behealdean, ipur-masailetan edo gorputzaren goialdean ezarri behar da; sekula ez bularraldean. Astean behin aldatu behar da txatala.

Juanma Sarasola | DONOSTIA

AEBetako botika konpainia batek bidea libre dauka jagoiti lehenbiziko txatal antisorgailua merkaturatzeko. Ikertzaileek diotenez, larruazalari atxikitzen zaion txatala ia %100 eragingarria da. Estatu Batuetan heldu den urtean eskuragarri izango dute; beti ere errezetarekin. Altabada, medikuek ez dakite oraino gainerako herrialdeetara noiz zabalduko den.

AEBetako Elikaduraren eta Botikaren Administrazioak (EBA) baiezkua eman berri dio *Ortho-Evra* deitu sistema antisorgailu berriari. Hori lortu arte, baina, hamaika saio kliniko egin dituzte Johnson & Johnson's etxeko Ortho-McNeil saileko zientzialariek.

Konpainiako ikertzaileen esanetan, *Ortho-Evra* txatalak ohiko pilula antisorgailuaren hormona bertsua jariatzen du, eta haurdunaldiak eragozten %99ko era-

gingarritasuna du. 3.319 emakumeri denbora tarte ezberdinetan egin probatan 15 geratu ziren haurdun; horietatik heren bat 88 kilotik goitiko emakumeak ziren. EBAko mediku Dena Hixonek jakinarazi duenez, zenbait emakumek sendagilearekin kontsultatu beharko lukete zein dosi hartu, izan ere, litekeena da pisuaren arabera handitu behar izana.

Ortho-Evra da AEBetan aurreko Elikaduraren eta Botikaren

VANESSA CULLINS

Planned Parenthoodeko mediku
presidenteordea

«Emakumeei kontrol handiagoa ematen die, eta ez da epe luzerako beste metodo batzuk bezain inbaditzailea»

DENA HIXON

Estatu Batuetako Elikadura eta Botika
Administrazioako mediku funtzionarioa

«Txatalak astean behin soilik aldatzeko aukera ematen du, egunero pilula hartzeaz oroitutik beharrik izan gabe»

Administrazioak baimenduriko laugarren sistema antisorgailua.

Metodo ez hain inbaditzailea

Metodo berriaz mintzo, Planned Parenthood (Planifikatutako Gurasotasuna) erakundeko mediku presidenteorde Vanessa Cullinsek zera esan du: «Emakumeei kontrol handiagoa ematen die, eta ez da epe luzerako beste metodo batzuk bezain inbaditzailea».

Azkenik, Dena Hixonek *Ortho-Evra*-ren ezaugarrietako bat ekarri du gogora: «Txatalak astean behin soilik aldatzeko aukera ematen du, egunero-egunero pilula hartzeaz oroitutik beharrik izan gabe».

BOTIKAK

Zortzi botika etxe zigortu ditu EBk bitaminen prezioa erabakitzeagatik

Erredakzioa | DONOSTIA

Europako Batzordeak inoiz ezarri duen isun handienaren berri eman zuen atzo. Zortzi botika konpainiak ordaindu beharko dute, 1989-99 urtean artean karteletan elkartu eta beren artean hainbat bitamina oinarritutako prezioak erabaki, eta merkatua kontrolatzeagatik.

Denera 855,22 milioi euro ordaindu beharko dituzte isunetan. Zatikirik handiena Hoffman-La Roche konpainia suitzarra ordaindu beharko du. EBren arabera, bera izan zen kartelen sustatzaile eta antolatzaile nagusia, eta gainerakoek baino zigor handiagoa merezi du.

Nolanahi ere botika etxe guztien jokabidea salagarria dela esan zuten. Izan ere, beren hitzarmenetan arrunt erabiliak diren bitaminen prezioa erabaki zutela gogoratu zuten. Bitamina horiek, esaterako, aski erabiliak dira gailetak, zerelak, edariak, pentsuak, botikak eta kosmetikoak egiteko. «Oro har, orotariko produktuak», zehaztu zuen atzo Europako Batzordeko Konpetentziarako komisario Mario Monti, botika etxeen jokaera gatzetsiz.

Hiru hilabeteko epea

Isuna ordaintzeko hiru hilabete izango dituzte botika konpainiek. Hoffman-La Roche etxearekin batera zigorra jaso duten gainerakoak Aventis frantziarra, Solvay holandarra, Merck eta BASF alemaniarrek eta Japoniako hiru konpainia dira: Daiichi Pharmaceutical, Eisai eta Takeda.

EBtik atzo aditzera eman zuten, oso larritzat jo dute botika etxeen jokabidea. Diotenez, horren arabera ezarri diote bakoitzari dagokion isuna.

Nolanahi ere, ikerketa gauzatzen lagundu dutela eta, konpainiek azken unean lortu dituzte zenbait abantaila ere. Horiei esker isuna uste baino txikiagoa izan da zenbait kasutan.

KONTUAN IZATEKOAK

Sistema erosoagoa

Estatu Batuetan ondu duten *Ortho-Evra* txatal antisorgailu berriaren ezaugarriak behinena erabiltzeko tenorean sumatuko dute emakumeek. Izan ere, sistema erosoagoa da ohiko pilula antisorgailuarena baino. Egundero-egundero hartu beharrean astean behin ipintzea nahikoa da. Nahigabeko ondorioei dagokienez, pilularen antzekoak dira.

ERABILTZEKO MAIZTASUNA. Hiru asteko denbora tartean, txatal bat erabili behar da astero. Laugarren astea —hilerokoaren tarte— txatalik gabe igaro behar da.

TXATAL ITSASKORRA. Txatala bainu eta ige-

riketa saioetan ere irauteko moduan diseinatu dute.

PISUAREN ARABERAKO DOSIA. Medikuek ohartarazi dutenez, baliteke 88,82 kilotik goitiko pisua duten emakumezkoek txatal bakarrarekin dosi antisorgailu aski ez izatea. Hortaz, medikuari galdetzea litzateke hoberena.

TXATALEN KOKALEKUA. *Ortho-Evra* txatal antisorgailua sabelaldearen behealdean, ipur-masailetan edo gorputzaren goialdean —baina inoiz ez bularraldean— ezarri behar da. Astero leku ezberdin batean paratzeko gomendatu dute.

PILULAREN ANTZEKO NAHIGABEKO ONDORIOAK. Elikaduraren eta Botikaren Administrazioaren arabera, txatalak ohiko pilula anti-

sorgailuaren antzeko nahigabeko ondorioak izan ditzake. Hau da, bihotzekoak, goitinahia eta odolbilduak izateko arriskua. Odolbilduen kasuan arriskua handiagoa da txatalarekin. Gisa berean, txatalak larruazaleko narritadura eragin dezakeela kontuan izan behar da.

ERRETZAILEAK, KASU! *Ortho-Evra* txatal antisorgailua erabiltzen den denboran emakumeak erretzen badu arazo kardiobaskular izateko arriskuak areagotzen ahal direla ohartarazi dute medikuek.

HAURDUNALDI TASAK. Ikertzaileen ustez, ohiko antisorgailuetatik txatal antisorgailura pasatzeak haurdunaldi tasak murriztuz ditzake. Halarik ere, ikerketek erakutsi dutenez, aipatutako bi metodoen artean ez dago ia tasa ezberdintasunik.